



KULTURA SAILA

2018-24 KUDEAKETA
TXOSTENAREN BALANTZEA





KULTURA SAILA

2018-24 KUDEAKETA TXOSTENAREN BALANTZEA



Txostena

“Kultura ez da gure denbora librean egiten duguna, baizik eta denbora guztian libre egiten gaituena. Aniztasuna ulertzeko, aukeratzeko, adierazteko eta balioztatzeko gaitasuna ematen digu. Azken batean, kultura eta askatasuna elkarri lotuta daude gure gizartearen izaera osatzeko”.



Kale Antzerkia. Mendekosteak. 2022

Aurkibidea

0	Jarduera kultural, eszenikoak eta jai herrikoiak garatzeko kontuan hartu beharrekoak.....	7
1	Lan arloak eta helburuak	8
2	Kultura Saileko aurrekontuak. Gastuen inguruko argibideak.....	10
2.1	Hitzarmenak herriko elkarteekin [KU01 & KU36]	10
2.2	Herriko jaiak. Dirulaguntzak eta antolaketa [KU01 & KU02]	11
3	Kultura-eszenikoa: antzerkia, dantza, zirkua. Gastuen deskribapena.	14
3.1	Arte eszenikoen kudeaketa. Dirulaguntza eskarien kudeaketa [KU10 & ID50]	15
3.2	Udalak jasotako dirulaguntzak. Sarrerak	16
4	Kultur emanaldiak. Deskribapena.....	17
4.1	Izaeraren arabera urteka	17
4.2	Programa berriak	19
4.2.1	Poesia Kaia.....	19
4.2.2	KmLezo	20
4.2.3	Antzerki-testu laburren lehiaketa	22
4.2.4	Txalostean.....	22
4.3	Labetik atera berriak	23
4.3.1	“Antzerki Ametsetan”	23
4.3.2	Euskadiko Kaleko Arteen jaialdiak bilduko dituen marka sortu dugu	23
4.3.3	KARRIKAN.....	23
5	Balantzearen xehetasun argigarriak	24
5.1	Kultur emanaldiak, jarduera eta publiko motaren arabera	24
5.2	Kultur emanaldiak, hizkuntzaren arabera.....	24
6	Kontuan hartu beharreko beste alor batzuk	25
6.1	Publikoen lanketa	25
6.2	Komunikazio jarduerak	25
6.3	Aretoen erabilera [AI02].....	28
6.4	Argitalpenak.....	29
6.5	Estatistikak [KU60]	29
6.6	Kontratazio mahaia, kanpo bilerak, epaimahaiak eta ferietan parte hartzea.....	30
6.6.1	Kontratazio mahaia eta balorazio txostenak udalean [ID16 & ID17]	30
6.6.2	Kolaborazioak dantza eta antzerki tribunaletan.....	30
6.6.3	Euskadiko Antzoki Sarea. Bilerak eta batzarrak.....	31
6.6.4	Feriak COFAE. Asistentzia.....	31
6.6.5	Lezoko ondare historikoa babestea eta berreskuratzea	33
7	Lezoarren legeegintzaldi hasierako balorazioa. Herritarren iritzia eta jarrerak, 2023.	34
8	2024. urteko Lezoko aurrekontuari buruzko Kultura Sailaren Memoria	35
9	2025. urteko lan lerroen kronograma	38

Orratx! Antzerki taldea. 2022

BOSKALDEAK



0. Memoria honetan jarduera kultural, eszenikoak eta jai herrikoiak garatzeko kontuan hartu direnak

1. Inplementatu beharreko kultur programen helburu espezifikoak .
2. Erakunde publikoen laguntzak eta diru-laguntzak bilatzea eta kudeatzea.
3. Jardueren egutegia eta ekitaldien programazioa zehatz-mehatz planifikatzea. Betiere daten esanguratsu eta gizarte interesak kontuan hartuta (8M, 25A).
4. Jarduera bakoitzeko baliabideak identifikatzea eta kudeatzea (finantzarioak, teknikoak). Alor teknikoan, behar denetan, produkzioa eta regiduria lanak planifikatu.
5. Jardueretarako ikus-entzule objektiboak identifikatu:
 - a. Ikus-entzuleentzako ekitaldi eta jarduera kultural egokiak hautatzea.
 - b. Aniztasun eta inklusio-estrategia sortzea, komunitateen parte-hartzea bermatzeko.
 - c. Kultura-zerbitzu fidagarrien hornitzaileak identifikatzea eta kontratatzea.
6. Komunikazio-plan eraginkorra diseinatu, balizko “bezeroak” informatuta edukitzeko. Horretarako:
 - a. Marketin eta sustapen plan bat egin.
 - b. Jarraipen eta ebaluazio-plana.
 - c. Ekitaldien ebaluazioa eta arrakasta mailak neurtu (inpaktua neurtzea).
 - d. Parte-hartzaileen asebetetze maila lortzeko mekanismoak ezarri.
7. Larrialdi eta segurtasun-planak diseinatu hala behar den jarduerako.
 - a. Koordinazioa hirigintza sailarekin, udala brigadarekin eta udaltzaingoarekin.
8. Arreta berezia ondoko udal plan hauei:
 - a. Ekitaldietako hizkuntza-erabilera.
 - b. Genero-politikak.
 - c. Hondakinak kudeatzeko plana.
9. Kultura sailaren beste atalekin lankidetzatza eta osagarritasuna
 - a. Tomas Garbizu Musika Eskola: Lesoinu, jardunaldi pedagogikoak
 - b. Udal Liburutegia: literatur saioak, literatur sariak,
10. Sormena eta “talentua” garatzeko, estrategiak.
 - a. Argitalpenen politika diseinatu.
 - b. Hitzarmenak herriko elkarteekin.
 - c. Ikastetxeen prestakuntzan sorkuntzarekin loturiko oinarritzko gaiak elikatu.
11. Iraunkortasun-estrategia ezarri, etorkizunean programak jarraipena izango dutela bermatzeko.

1. Lan arloak eta helburuak

Kultura belaunaldiz belaunaldi transmititzen diren sinbolo, balio, sinesmen, ideal, ohitura, mito eta erritualen multzoa da. Horiek guztiek nortasuna eta esanahia ematen diete komunitateko kideei.

Lezoko Kultura Sailaren lan-ildoak planteatzean kontuan hartu ditugun lau printzipio nagusitan oinarrituta sortu eta garatzen dira Lezoko kultura-politikak:

- kulturak estandar sinboliko eta komunikatiboen hedatzaile gisa duen balio estrategikoa.
- nortasun kolektiboak oinarritzeko oinarria delako.
- ondorio positiboak dituelako. Ekonomikoak eta sozialak sormena, autoestimua eta pertsonen eta lurraldeen irudi positiboa garatzean.
- ondare kolektibo kulturalak, historikoak edo naturalak zaintzeko beharragatik.

Horiek abiapuntu, Lezoko udalerrian finkatutako kultura politikak herritar aktiboak, ongizatea eta bizi kalitatea du helburu. Lezok, berdintasuna, hizkuntza, kultura eta sormena tresna bezala erabiliz, identitatearen ardatza osatzea “erabaki” du.

Lezo eremu naturala den heinean, pertsonak elkartzeko leku aparta ere bada. **Lezok kultura eta sormena babestu behar ditu;** izan ere, Kultura Siletik egiten dugun diagnostikoan bistakoak diren indargune nabariak ditu: kulturalki sortzaileak eta aktiboak diren pertsona ugari biltzen ditu alde batetik eta, bestetik, kultura-dinamismo handia erakusten du. Era berean, kultura-sentsibilizazio eta parte-hartze handia nabari da antolatu ohi diren jarduera kasik denetan eta, Jaizkibelen magalean egonik, kokapen pribilegiatua du ekimen kulturaletarako eta sormenezko ekimenetarako -Trapujale eta Zabarre kasu, besteak beste-. Horrezaz gain, garrantzi eta bereizgarritasun handiko ekimenak ditu.

Gainera, kultura dinamizazio ekonomikorako eta ekimen sustatzaileak erakartzeko oinarria izan daitekeelakoan gaude. Izan ere, Europar Batasunak kulturaren eta sormenaren aldeko apustu garbia egin zuen, eta, gaur egun, balio erantsiko enplegua sortzeko potentzial handiena duen sektoreetako bat da. Alabaina, kultura oso eremu intentsiboa da eta, duen osagai sortzailearengatik, berrikuntzaren gainean duen inpaktua ere nabarmendu behar da.

Baliabide kulturalak udalerrriaren garapen orekaturako giltzarri bihurtzea da Kultura Sailaren estrategia. Horretarako, kultur sektoreko ekoizpen-katearen elementu guztiak hartu beharko dira kontuan -artista eta produktu kulturala, edizioa eta inprimaketa, digitalizazioa, komunikazioa... -, irudi erakargarria ematen saiatuz eta udalaren irudi korporatiboa marka kulturalari atxikitzen saiatuz.

Finean, **kultura eta garapen sozioekonomikoa bateratuko duen herria** osatzen laguntzea da gure helburua, betiere, herritarren bizitzeko moduan eragin positiboa bilatuz. Premisa horietatik abiatuta, Kultura Sailak kulturarako sarbidea landuko du, **herritarrak eta elkarteak kulturaren erdigunean jarri nahi baititu**, gure kultura-politikak sortzaileak izan daitezen.

Sormen artistikoa finkatze aldera, **berrikuntza dinamikoaren aldeko apustua egiten da** proiektu kultural-artistikoetan. Lezoko herrian kultura-kalitatea hobera egiteko kontuan hartuko dira: ondare arkitektonikoaren balioa sustatzea, turismo kulturalaren garapena estimulatzea, udalerria zirkuitu kulturaletan uztartzea, trebakuntza artistikoa bertan bilatzea eta sustatzea. Finean, bertako zein kanpoko artista, konpainia eta taldeen buruetan eta ahotan izaera hau “txertatzea”...-

Etengabeko formazioan eta esku-hartzean inbertitzea. Bizitzan zehar etengabeki harremanetan eta ikasten dihardutenak dira gizarte hobeago baten oinarria. Ezagutzen murgilduta, Lezok pertsona guztientzako aukerak eskaini behar ditu, eta ikaskuntza iraunkorraren kultura sustatu nahi du modu eraginkorrean, kulturarekiko jarrera aktiboak sortuz eta eskaerak sustatuz.

Kultur bizitzan gehiago eta hobeto trebatutako herritarrek dira gizarte berri baten hazia. Gaitasunak ez ezik konpetentziak ere badituztenak: sormena eta izaera kritikoa, esaterako.

Herritar aktiboak bultzatzea. Lezoko Udalaren Kultura Sailak, ezagutza bultzatzeaz gain, prestakuntzarako, hedapenerako eta baloreen transmisiorako sistema ona bermatzea du eginkizun inportantea. Aldi berean, funtsezkoa da kultur jarduera gizarte-bazterketa saihesteko eta **genero berdintasuna** sustatzeko udalerrian aurrera begirako urratsak bermatzeko. Izan ere, **udalerri integratzailea** den aldetik, Lezok konpromisoa hartu du irekitasun eta tolerantzia handiagoa izateko. Horretarako elkar ezagutzea eta udalerriko kultura, balio eta xedeak etengabe elkarri hurbiltzea da lana, bizikidetzatza demokratikoaren eta **herritarren erantzukizunen alde** eginez.

Eta horrekin batera, gure **hizkuntza, euskara**. Gizarte osoarena izaki, pertsona guztiei dagokie eta, **kohesio sozialerako behar-beharrezko osagaia izanik**, Lezoko Udalak antolatutako **kultur jardueretan ere izango da aldagai honen isla**. Pertsonen jatorria eta kultura-atxikipena edozein direla ere, espazio publikoetan hizkuntza partekatu eta komuna bezala izango da lehenetsia euskara.

Eta hori guztia kontuan izanik, honako hauek dira Sailaren jarduerak-ildo nagusiak:

1. Lezoren **existentzia eta nortasuna erakutsi eta indartuko duen ildoak planifikatzea, sustatzea eta gauzatzea**: liburuak, ipuinak, fototeka eta memoria, ondarearen berreskurapena eta bilduma, emankizunak, jaiak ...
2. **Antzerkia, dantza eta musika-sorkuntza sustatzea** Azken hori Tomas Garbizu udal musika eskolarekin batera. Izan ere, eszenarekin lotutako jarduerak horiek tokiko taldeak dituzte, bai eta udalerrian oso errotuta dagoen jarduerak propioa. Talde horiek herrian indartzea -azpiegitura eta baliabideak eskainiz eta aipatu jarduerak iraun dezaten, ekonomikoki laguntzea hitzarmenen lan larria finkatuz-.
3. Aldi berean, Euskal Herriko zein atzerriko **kultur emanaldi berrien produkzioak bertan programatzea**, kanpoko eragileen joera eta lan berriak ezagutarazteko. Arte-disziplina hauek pertsonak konektatzeko eta hausnarketarako espazioak sortzeko eta komunitatearen nortasun kulturala adierazteko, zeinu hizkuntzan, sormenean eta inklusioan gizarteari ahotsa emanez.
4. Esku hartze zabalena eta orekatuena bultzatuko duten ekintzen bitartez, herriko elkarten urteko kultur jarduerak sendotzea eta, **jaietan dirulaguntzen larria eta izaera finkatuz**, horiek burutu ahal izateko azpiegituraren kudeaketa egokia bideratzea.
5. Arestian esandakoak gauzatzeko, **prozedura administratiboetan egin behar diren kudeaketak** eta kultur eragile ororen lana erraztea eta horien proposamenak zein sailaren aurrekontuak bideratzea.

Helburu hauen egoera eta garapena Kultura Sailean ulergarriago eta jarraipenerako arinagoa izan dadin, 5 ataletan banatu dugu balantze memoria hau.

2. Kultura Saileko aurrekontuak. Gastuen inguruko argibideak

Kudeaketa planaren balantzea zenbakitzen saiatuko gara. Horretarako, Kultura Sailak dituen aurrekontuetan gauza gehiago badaude ere, ondoko bi multzo handien inguruan arituko gara:

1. Hitzarmenak
2. Jaiak eta ospakizunak

2.1. Hitzarmenak herriko elkarteekin [KU01 & KU36]

Honako hau da Kultura Sailaren 4. helburua: “Esku hartze zabalena eta orekatuena bultzatuko duten ekintzen bitartez, herriko **elkarteen urteko kultur jarduerak sendotzea eta, jaietan dirulaguntzen lerroa eta izaera finkatuz**, horiek burutu ahal izateko azpiegituraren kudeaketa egokia bideratzea”. Esandakoa gauzatzeko, hiru urteko epealdiaosatzen duen Plan Estrategikoaren hiru lerro zuzentzen ditugu.

- 2.1 Lerroan Euskal eskolaren legea onartu bitartean, Lezoko hezkuntza jarduraosatzen duten eskola-komunitatearen proiektuak garatzea.
- 5.1 Auzo tradizioak, jaiak eta ekimen kulturalak bultzatuz irabazi asmorik gabeko elkarte eta partikularren jardura propioak eta elkarlana sustatzea.
- 5.2 Herriko elkarte eta partikularren artean kultura eta arte jarduerak sustatzea -ikastaroak, lehiaketak...- hala nola irabazi-asmorik gabeko elkarteak eta udal jarduerak babestu eta bultzatu kulturarekin lorturiko ekimen pribatuak areagotzeko.

UDAL AURREKONTUAK Hitzarmenak elkarteekin	2018	2019	2020	2021	2022	2023	2024
2132 - Pasaia Lezo Lizeoa - Garraioa	100.000	100.000	100.000	100.000	100.000	100.000	100.000
Haurtxo Haurtzaindegia - Jangela	4.996	5.343		5.328	5.433		
2139 - Orratz Antzerki Taldea	4.500	4.500	4.500	4.500	4.500	6.000	6.000
2145 - Muxika Dantza Taldea	6.000	6.000	6.000	6.000	6.000	6.000	6.000
2154 - Munttar Txistulari Elkartea	3.500	3.500	5.000	5.000	5.000	5.000	5.000
2192 - Trapujale Inauteri Elkartea	1.000	1.000	1.000	1.000	1.000	1.000	1.000
2166 - Hezikuntza - Aldizkaria	1.000	1.000	1.000	1.000	1.000	1.000	1.000
Xalto eta Brinko				2.000	2.500		
3541 - Zinema Txikia					1.000	1.000	1.000
3542 - Etxetxo Memoria Historikoa					1.000	1.000	2.500
3622 - Dantzaz					3.500	3.500	3.500
Lezokoak Merkatarik elkartea				4.000	4.000	4.000	
GUZTIRA	120.996	121.243	117.500	128.828	134.933	128.500	126.000

Ikusten dugunez 2018an, aurreko Plan Estrategikoan zazpi hitzarmen genituen eta, gaur egun, egin berri dugun Planean, hamar ditugu, nahiz 2022an 12 kudeatzera iritsi ginen -Lezokoak, Merkatarik Elkartearena barne- azken orduan erantsitako horrek ekarri zuen enbarazu handiarekin.

2.2. Herriko jaiak. Dirulaguntzak eta antolaketa [KU01 & KU02]

Lezoko jaiak data seinalatuak dituzte, lege zaharrean, hainbat ospakizun finko dituzte -data zehatz batzuetan- eguzkiaren arabera esango genuke eta beste batzuk aldatzen direnak. Gure egutegian Mendekosteek ez dute egun zehatzik, urtero aldatzen baitira pazko-eguneko ilargi betearen oinarri hartuta. Lezoko urteko jaiak honako zikloetan antolatzen dira:

Inauteri-garaia, elurte eta hotz -garai batean behintzat bai-, azaroan hasitako ereintzaren bukaera da. Urtero aldatzen da, pazko-garaiko ilargiaren arabera, Lezon jai giro herrikoia eta bizi-bizia Trapujaleri esker.

Urtero mudatzen da Garizuma-aldia: berrogei egun dira edo zazpi aste Inauteri astean hasi eta Aste Santura bitarte. Neguaren azken hondarretan eta udaberriko hastapenetan, zelaiei arreta egiteko garaia da. **Aste Santuko** zikloko ospakizun erlijiosoen multzoak “bere baitan” hartzen du pazko ilargia, urteko **Mendekoste** jai mugikorak antolatzen dituen.

Ekainean hasten dira fruitu-biltzeak edo uztak eta belarra moztea. Gurean **Euskal Jaia**, ekainaren bigarren asteburuan eta udako solstizioarekin eta nekazaritzako edo arrantzako lanekin batera, **San Joan eguna** -San Joan Bataiatzailearen jaiotza eguna- ez jai paganoa, ekainak 21ean garatzen dena udako solstizioan.

Udazkenaren atarian izaten dira irailean Altzate auzoko jaiak eta **Santakrutzak**, herriko jai nagusiak -udazkeneko jai-zikloaren hasieran nekazaritzako urte berrirako aldaketa-. Urrian bukatzen dira fruitu eta uztar-biltzeak, eta azaroan sartu aurretik, dagoeneko Lezon hainbat saio egin ondoren -komiki liburu eder baten argitalpena barne-, **Gaubeltza** ospatzeari ekin diogu 2023an, hasierako ereiteak eta ongarritzeen aurretik.

Azkenik, Eguberri ingurua urteko aldirik hotzena izaten da, elurra -gero eta urriago- eta euria tarteko. Etxeko lanak egiteko edo baserri barruko lanak egiteko aproposa, sukalde-giroko egonaldiak garrantzi handia izan ohi dute. Gurean, aipagarrienak, Santomas, Jesusen jaiotza eta urte berriaren hasiera.

Laburtuz, “Herriko jaiak” epigrafe honen barruan guztizko aurrekontua bildu dugu. Hau da, Inauteriak, Mendekosteak, Euskal Jaia, Altzate auzoko jaiak, Santakrutzak, Gaubeltza eta Gabonak. Horien guztien bigarren eta laugarren kapitulu batura egin dugu. Ondoren ikusten denez, 90.132 eurotik 143.400 eurora pasa gara. Aurrekontuen xehetasunetan sartuko bagina, badago zer kontatu 4. kapitulutik 2. kapitulura eman diren higadurak kontatzen -dirulaguntzen legera emeki-emeki egokituz- eta tramitaziotan izan ohi diren katramilekin ere beste hainbat gauza esaterik izango genuke, baina ez da lekua.

Ondoko taulan, urteko jai bakoitzeko gastua eta honek guztizkoan suposatzen duen ehunekoa.

Jaiak	2018		2019		2020		2021		2022		2023		2024	
	€	%	€	%	€	%	€	%	€	%	€	%	€	%
Inauteriak	1.723	1,9	4.357	3,9	5.914	56,2	669	2,4	1.899	1,6	4.266	2,9	5.000	3,9
Mendekost.	18.858	20,9	24.250	21,5	2.588	24,6			25.299	20,7	35.274	23,6	30.000	23,3
Euskal Jaia			6.378	5,6					5.576	4,6	7.542	5,0	Zehazt.	
Altzate jaiak											2.368	1,6	3.000	2,3
Santakrut.	62.135	68,9	73.554	65,2	77	0,7	25.690	93,1	86.578	70,7	82.443	55,1	89.500	69,4
Gau Beltza											2.000	1,3		
Gabonak	7.416	8,2	4.354	3,9	1.936	18,4	1.227	4,4	3.117	2,5	15.712	10,5	1.500	1,2
Gaintxuriz. jaiak													1.135	

Jaiak. Aurrekontuak guztira	2018	2019	2020	2021	2022	2023	2024
Jaiak	90.132,46	112.891,8	*110.514,82	*227.585,56	122.469,71	*3149.604,74	*4129.000

*1 Behin-betiko aurrekontua 122.841,36 €-koa zen, baina COVIDa izan zela eta, adierazitako kantitatea soilik xedatu zen.

*2 Behin-betiko aurrekontua 111.180,00 €-koa zen, baina COVIDa izan zela eta, adierazitako kantitatea soilik xedatu zen.

*3 Baimendutako aurrekontua 200.710,84 €-koa zen. Kopuru horretatik 29.283,99 € inbertsioetarako dira eta 21.822,11 € jai guztietako antolaketa gastuetarako partekatutako partida batekoak (komunen, hesien... alokairua, garraio gastuak eta abar).

*4 Hasierako aurrekontua 143.400 €-koa da. Kopuru horretatik 14.400 € jai guztietako antolaketa gastuetarako partekatutako partida batekoak (komunen, hesien... alokairua, garraio gastuak eta abar).

Eta diru partida hauekin batez beste urteko 141 ekitaldi antolatuta dira -COVIDaren urte arraro horiek kenduta-. Urtez urteko banaketa:

Ekitaldiak	2018	2019	2020	2021	2022	2023	2024
Inauteriak	20	17	20	-	9	20	20
Mendekosteak	31	28	-	-	26	34	30
Euskal Jaia	-	15	-	-	8	6	9
Santakruzak	60	52	-	-	61	58	44
Gabonak	34	29	-	21	30	27	28
Altzate jaiak	-	-	-	-	-	17	15
GUZTIRA	145	141	20	21	134	145	131

Baina jaietan aurrekontuak eta gastuak egoteaz gain, badago prozeduretan kudeatu beharreko beste gauza asko: dirulaguntza eskariak alde batetik eta, bestetik, ekitaldien arteko koordinazioa eta azpiegitura banaketa antolatu nahi diren horiek behar den bezala ateratzeko -ekitaldien arteko oreka bilatuz eta udaleko sail ezberdinen arteko koordinazioak landuz-. Ondoko taulan jai bakoitzak azken urteetan jaso dituen eskariak (erregistro kopurutan).

Jaietan DIRULAGUNTZA & AZPIEGITURA ESKARIAK	2018	2019	2020	2021	2022	2023	2024
Inauteriak	1	2	2	0	1	0	2
Mendekosteak	16	13	0	0	10	8	18
Euskal Jaia (2019an lehena)	-	7	0	0	2	3	5
Altzate jaiak	0	0	0	0	0	1	1
Santakruzak	42	32	0	0	9	17	1
Gau Beltza	0	0	0	0	0	1	1
Gabonak	4	5	0	1	2	4	4
Gaintxurizketako jaiak	-	-	-	-	-	-	1
GUZTIRA	63	59	2	1	24	34	33

Zabarrerren etorrera. Mendekosteak.



i14 bazkari herrikoia. Santakruzak

3. Kultura-eszenikoa: antzerkia, dantza, zirkua. Gastuen deskribapena.

Kultura Sailaren ildoaren 2. helburua: "Antzerkia, dantza eta musikaren sorkuntza sustatzea -azken hau Tomas Garbizu udal musika eskolarekin batera-. Eta 3. helburuak ere honela dio: "Euskal Herriko zein atzerriko kultur emanaldien produkzioak bertan programatzea, kanpoko eragileen joera eta lan berriak ezagutarazteko".

Nahiz geroago ikusiko dugun bezala diru sarrera ugari jasotzen duen alorra izan, atal hau izan da 2024ko aurrekontuetan "kaltetuena". Bestalde, gure etengabeko gogoetatik abiatuta, sailaren helburuen garapenerako ekimen berriak sortu ditugu -ikus 5. taula-. Hau da, azken lau urteetan emeki-emeki sendotzen doazen hiru ekimen berriak sortu ditugu eta laugarrena 2024ko honetan sortzear dago:

- Kilometro Lezo (2020an hasi zen)
- Poesia kaia (2021ean hasi zen)
- Testu laburren lehiaketa (2023an hasi zen)
- Euskal antzerki amateurren jardunaldiak (2024an lehenengoa)

Sortu ditugun ekimen berri horietatik bi kalean garatzeko direnez, esan behar dugu arte eszenikoen ikusgarritasuna eta parte-hartzea zabaltzeko asmoz egin direla. Programa hauek lantzen dugunon ikuspegitik, antzerkia eta dantza programatzen dugunean, ez da gure asmoa ikusleak sortzea, jarduerak errentagarri eta bizkorak egitea. Kultura-eszenikoen errepresentazioek itxaropenak sortu behar dute. Izan ere, itxaropenak sortzen ditugunean, beste ikuskera bat zabaltzen dugu, ahots kritikoak sortzen ditugu, ikasteko jakin-mina duten ahotsak sortzen ditugu; gatazkak ahalbidetzeko eztabaidak eta gizartea hazteko tresnak sortzen ditugu. Eta guk antzerkiarekin, dantzarekin, kultura-egitasmoekin, oro har, horiek guztiak landu nahi ditugu.

Antzerkia (errepresentazioa) eta dantza -kantua eta musika bezala- gizartearen hasiera hasieratik daude gure artean. Istorioak kontatu nahi duen jendea dagoelako. Kontaerek diraute "entzun" nahi dituzten beste pertsona batzuk daudelako; nahikoa da istorio kontatu nahi duen pertsona entzun nahi duen beste batekin topo egitea antzerkia eta dantzaren erritua beste behin sortzeko. Antzinetik datorren erritua errepikatzeko, mendez mendeko transmisioa beste behin bideratzeko.

Antzinako gizakion arte horiek "betiko" iraun dezaten ahaleginetan, kontu kontari, sormenari lekua eta plaza eskaintzeko ahaleginetan gabilta aspaldiko partez. Antzerkia, dantza, musika, ipuin kontaketa... gure izate adimentsua sustraiekin lotzen gaituen ekintza eta jardun oro lankidetzan, Musika Eskolarekin eta udal liburutegiarekin batera, lantzen dugu. Sortzailea, ikuslegoa eta jarduna ahalbidetzeko, zuzeneko jakintzaren transmisioan etenik egon ez dadin.

Bestalde, agerikoa da kaleko antzerkia programatzea arriskua dela. Gizarte oso hierarkiko eta antidemokratikoetan ez da onartzen, ihes egiten duelako zuzeneko kontroletik. Zer egingo du bada aktoreak? Nola erantzungo du ikusleak? Gurean, zorionez, arazo hauek gabe bada ere, landu nahi izan dugu, eta duela bost urte jaietan emanaldi bat edo beste programatzetik jauzia eman genuen eta KmLezo abiatu genuen aretora hurbiltzen ez diren horiengana iristeko. Zirrarak sortarazteko. Kaleko festak sortzen duen aparteko egoerak ezarritako ordena aldatzen laguntzen duelako.

Kale antzerkian/dantza-kalean jardueratan landu nahi dugun jarduera hauetan, eduki asko sartzen ditugu: kontakizuna, errituala, mugimendua, dantza, tradizioa, argia eta musikarekin lotuak daudenak.... publikoari dardara eragiteko -eta ekitaldiak benetan komunikazioa lortzen badu- publiko hori leku magikoetara, ametsen mundura eramaten du. Eta AA (Adimen Artifiziala) eta teknologia nagusitzen ari den garaian, jarduera hauetako adituek behin eta berririo esaten duten bezala, hau guztia landu behar dugulakoan gaude.

Jarduera hauetarako izan dira zuzenduak diren aurrekontuak:

UDAL AURREKONTUAK	2018	2019	2020	2021	2022	2023	2024
2084 - Kultur Ekitaldiak	67.363	92.309	106.293	111.494	106.695	108.490	65.000
3188 - Kale emanaldiak		13.929	36.668	60.633	56.408	45.598	30.000
2319 - Teknika	11.583	1.639	6.358	14.357	12.814	16.031	18.000
2073 - Publizitatea & Komunikazioa ¹	12.286	16.771	15.646	20.893	13.597	17.420	9.500
GUZTIRA	91.232	110.719	164.965	207.377	189.514	187.539	122.500

¹ Alor honetan dagoen gastua, jaietan egiten diren ekitaldiak ere uztartuak daude.



3.1. Arte eszenikoen kudeaketa. Dirulaguntza eskarien kudeaketa [KU10 & ID50]

- o Gezala Auditoriuma [aretoko ikuskizunak]
- o KmLezo [kale antzerkia eta dantza]
- o Txalostean / testu laburren lehiaketa
- o Antzerki amateurraren jardunaldiak [aurtengo urrian gartzeko aurreikusia]

Arestian esan bezala, atal hau dirulaguntzak jasotzen dituen kasik bakarra da -nahiz tarteka, argitalpenek ere jaso izan dituzte-. Urtero batez beste zazpi dirulaguntza kudeatu ditugu: bi Eusko Jaurlaritzan -Publikoen deialdia

eta Kale Kultura eta honen barruan Dantza Zirkuitua- eta beste bi Gipuzkoako Foru Aldundian -Euskadiko Antzokien Sarea eta Kale Kultura eta lehenengoaren barruan Erresidentziak arte eszenikoak sustatzeko-.

Taula honetan urtez urte egin ditugun dirulaguntza eskariak daude, eta hurrengo taulan, urtez urte jaso ditugun dirulaguntzen kuantifikazioak.

DIRULAGUNTZEN KUDEAKETA eskariak & zuriketak	2018	2019	2020	2021	2022	2023	2024
EJ - Dantza Zirkuitua [abendua]	1	1	1	1	1	1	1
EJ - Kale Antzerkia [martxoa]	1	1	1	1	1	1	1
Beste Bat Berri [Musika COVIDan]			1	1			
Aldundia - Euskadiko Antzoki Sarea [abuztua]	1	1	1	1	1	1	1
Aldundia - Kale Kultura [abuztua]	1	1	1	1	1	1	1
Memoriak							
EJ - Kale Antzerkia [otsaila]	1	1	1	1	1	1	1
Beste Bat Berri [Musika COVIDan]			1	1			
Aldundia - Euskadiko Antzoki Sarea [otsaila]	1	1	1	1	1	1	1
Aldundia - Kale Kultura [otsaila]	1	1	1	1	1	1	1
GUZTIRA	7	7	9	9	7	7	7

3.2. Udalak jasotako dirulaguntzak. Sarrerak

Kudeaketa horien hurrengoa da ondoko taula honetan ikus dezakeguna. Batez beste eta gorabeherak tarteko, Lezoko Udalak 40.000 eurotik gorako diru sarrerak izan ditu dirulaguntzetan Eusko Jaurlaritzatik eta Gipuzkoako Foru Aldunditik.

Horri gehitzen badiogu sarreraren salmenta, txartel-leihatila, azken hiru urtetan 60.000 eurotik gorako diru sarrerak izan dira Gezala Auditoriumean.

Udalak jasotako DIRULAGUNTZAK	2021	2022	2023	2024
Euskadiko Antzoki Sarea [Foru Aldundia]	11.338 €	15.116 €	13.736 €	9.139 €
Kale Kultura [Foru Aldundia]	4.000 €	8.000 €	4.570 €	4.329 €
Erresidentziak Lezon Arte [Foru Aldundia]	6.000 €	4.200 €	4.200 €	4.200 €
Kale Antzerkia Bultzatuz [EJ]	5.332 €	9.934 €	4.012 €	5.325 €
Dantza Zirkuitua [EJ] Dantza emanaldietan cache erdiak ordaintzen ditugu	6.009 €	8.687 €	6.650 €	6.696 €
Beste Bat Berri [EJ]	9.934 €	Programa desagertua		
Txalostean + Testu lehiaketa [Udala + Hika] – Publikoak [EJ] Lehiaketaren emanaldiaren erdia ordaintzen dugu	Ez genuen eskatu		9.502 €	19.365 €
Txartel-leihatila, sarrerak Lezon	16.491 €	20.294 €	17.052 €	19.327 €
GUZTIRA	59.104 €	66.231 €	61.695€	55.042€



Antzerkia. Gezala. 2024

4. Kultur emanaldiak. Deskribapena



Gizakia bereizten duen ezaugarrietako bat sormen-gaitasuna da. Ez gara eskuratutako ezagutzak errepikatzen mugatzen: berritu egiten dugu. Ideiak xurgatu eta hobetu egiten ditugu, eboluzioaren oinarriko estrategien ereduari jarraituz. Oinordetzan jasotako jakintzak hartu eta haiekin esperimentatzen dugu, manipulatu, konektatu, konbinatu eta urratu egiten ditugu, eta horrek guztiak aurrera egitea eragiten digu, bai artearen arloan, bai arlo zientifikoan eta teknologikoan.

Sormena da gure burmuinaren potentzialitateetako bat. Guk ez dakigu nola funtzionatzen duen, ez eta nola sustatu eta garatu daitekeen, baina badakigu eztabaida

eta ideia berriak ezagutzeak, asmakizunetan aritzeak honaino ekarri gaituela. Hau da gure lanean beti presente duguna, hau da edozein ekintza edo jarduera planteatzerakoan bilatzen duguna: kezka, zirrara, eztabaida, itxaropena.

Halere, oraingo honetan egoera kuantitatiboari jarriko diogu arreta eta, horretarako, hainbat taula erakutsiko ditugu, izan ere, helburuetara hurbiltzen ari garen edo ez jakiteko zenbakiak ere inportanteak dira. Zenbakiak gauzak “kontakten” baitituzte.

Aipatu aurrekontuarekin ekintza ugari antolatu ohi dira Lezoko herrian -eta zorionez, guk antolatzen ditugunez gain, herri ekimenetatik datozen beste asko ere badaude: Garagardo Feria, Gau Beltza, Gazte olinpiadak, bertso saioak...- nahiz eta hemen ez ditugun horietan sakonduko, azpiegituratan, behar teknikotan eta koordinazioan gure parte-hartze handia eskatzen dute. Kasik beti dirulaguntzen tramitazioan ere bai.

Laburbilduz, hauek dira azken urtetan gure parte-hartze zuzenarekin, modu antolatuan bideratu ditugun ekintzak alorka. Ikus daitekeenez, pandemia urteak kenduta -2020 eta 2021-, batez beste Gezalan, Kilometro Lezon eta jaietan 140 kultura-ekitalditik gora antolatu izan dira sail honetatik.

4.1. Izaeraren arabera urteka

Kultur emanaldiak EKINTZAKA	2018	2019	2020	2021	2022	2023	2024
Gezala - Arte Eszenikoak	48	38	39	43	42	41	15
Gezala - [Erreserbak, hitzaldiak, sorkuntza...]	32	38	14	23	12	11	3
Gezala - Zinema eta hitzaldiak	6	18	12	20	15	13	9
Gezala - Musika [Kultura & Lesoinu]	12	12	13	10	14	11	8
Kultura Aretoa	43	45	24	10	24	12	8
Kilometro Lezo [BERRIA]	-	-	8	17	17	7	5
Poesia Kaia azaroan [BERRIA]				3	4	4	3
Testu laburren lehiaketa [BERRIA]						1	1
Antzerki Amateurraren topaketak [Urriak 25-26-27] [BERRIA]							4
GUZTIRA	141	151	110	126	128	100	56



Leioa. Arte kale batzarra. 2021

Lesoinuko emanaldiak, nahiz eta Musika Eskolak antolatzen dituen, hemen uztartu dugu. Guk, Kultura Sailetik beraiekin lankidetzan musika emanaldi pare bat antolatzen ditugu, eta eskolako zuzendariarekin adostu ondoren programatzen ditugu. Ohar hau kenduz, Lesoinuko egitaraua bere osotasunean Musika Eskolak antolatzen du.

Jarduera balantze honetan ez ditugu sartu irakurzaletasuna sustatzeko Lezoko liburutegiak antolatzen dituen **Literatur saioak** eta **Ipuin kontaketak**. Esan bezala, liburutegiak antolatzen dituelako eta liburutegian garatzen direlako, baina, aldi berean esan beharra dago paperezko agendan zein webean agertzeko koordinazio eta antolaketa lanak gure ardura direla -Lesoinurekin bezala-.

Jarraian, beheko taulan, kultur emanaldien **kontratuak** daude urteka. Batez beste, ikus daitekeen bezala, urteka 50 kontratu gauzatzen dira. Kontratu hauetako bakoitzari erantsi behar zaio **eskari kontablea, errejidoretza lanak eta komunikazioa**. Hau da, kontratu bakoitzeko lotu behar dira **alor teknikoak** eta emanaldiko **komunikazioa jarduerak** web-orrian, paperezko agendan, App-an (komunikazioak), sare sozialetan eta hainbatetan, paperezko Hitzan iragarkia.

Kultur emanaldien kontratuak urteka	2018	2019	2020	2021	2022	2023	2024
Gezala - Arte eszenikoak	53	38	39	43	42	41	29
Kilometro Lezo	-	-	8	17	17	7	5
GUZTIRA	53	38	47	60	59	48	34



KmLezo. 2023

4.2. Programa berriak

4.2.1 Poesia Kaia



Poesiari laguntzeko programa, Juan Ramón Makusoren eta Balea Zuria argitaletxearen laguntzarekin. Jarudera txikienak ere Lezon lekua behar dutelako.



- Programa honen edizio guztietan idazle garrantzitsuak izan dira, baita poesiako azken sari nazional batzuk ere.

4.2.2 KmLezo

Laugarren ediziorako, Euskadi mailan errekonozimendua izaten eta Artekaleko programetan agertzen hasi dena.



Kale emankizunak, kulturgintzaren aldeko apustua.

Bosgarrenekoaz, 2024an Lezon kale kulturaren aldeko apustua berretsi dugula. Aurtengoan nekezago izan da udalak ez baititu kultura eszenikora aurrekontuak mantendu, partidak "jaitsi" egin ditu eta ildoen jarraipenaren arriskua ukitzen hasiak gara.

Kale emankizunak eta kilometro Lezo. Ekimenaren oinarri eta helburuak

- Lezoko bizitzan, kultura erdigunean kokatzea.
- Arte eszenikoen sustapena dinamizatu zentzu guztietan, bai eremu profesionalean, bai Lezoko talde amateurrengan zein herritarrengan.
- Euskal Herriko enpresen ekoizpen eszenikoen erakusleho berria irekitzea Lezon.
- Kulturaren adierazpen eszeniko ezberdinen sustapena, betiere, kalitatea, aniztasuna, diziplina ezberdinen arteko ikusgarritasun eta modu berritzaileak kontuan hartuta.
- Askotarikoa programazio eskaintzea. Gure ohiko programazioan eta antzokiaren ezaugarriengatik -100 lagunekoa aforoa eta 3m. altura- sartu ezin direnak, "sartu" eta ezagutarazi.
- Espazio bat, erakusleho bat sortzea, konpainia profesionalen lanak erakusteko eta "gureak" eta euskaraz diren produkzioak lehenetsi.





Kilometro Lezo EMANALDI KOPURUA	2020		2021		2022		2023		2024	
	Ost.	Lar.	Ost.	Lar.	Ost.	Lar.	Ost.	Lar.	Ost.	Lar.
Emanaldiak	4	5	9	10	3	3+11	2	5	2	3
1) Kale Antzerkia	3		5		2		2		2	
2) Zirkua	-		2		2		2		1	
3) Dantza	2		2		1		3		2	
4) Musika	4		10		12		-		-	
GUZTIRA	9		19		17		7		5	

Eta goiko taula honetan KmLezok izan duen emanaldi kopurua agertzeaz gain, ikuskizunak izaeraren arabera sailkatu ditugu. KmLezo pandemia garaian sortu genuen arte eszenikoek pairatzen zuten egoera ekiditen laguntzeko. Jaio zen moduan edo dena delakoak tarteko, jarduera hau asko aipatu da Euskal Herrian eta 2021ean, Leioan garatu zen Artekaleren Batzarrean, Lezoko ekimenaren aurkezpena egitera gonbidatu gintuzten.

4.2.3 Antzerki-testu laburren lehiaketa

29 idazleren parte-hartzearekin eta 35 urteko esperientzia duen Hika Antzerkia antzerki taldearen laguntzarekin.

- Sorkuntza honek 10.00
- 0 euroko dirulaguntza handia izan du Eusko Jaurlaritzaren eskutik.



4.2.4 Txalostean

Txalostean izeneko programa inplementatu da publikoak sortzeko, eta orain, emanaldi eszeniko bakoitzaren ondoren, 20 minutuko eztabaida dago, Agurtzane Intxaurreaga antzerki-zuzendariak gidatuta.



4.3. Labetik atera berriak

4.3.1 “Antzerki Ametsetan”


Jaialdi amateurra, sortu dugu eta programa berri bat kudeatzen ari gara hainbat herri eta antzerki talde amateurrekin lankidetzan. Asmoa, bete herrietara eroatea (lanean gaude).



4.3.2 Euskadiko Kaleko Arteen jaialdiak bilduko dituen marka sortu dugu

Parte hartzen duten jaialdiak: Rataplan (Barakaldo), Festival Internacional de Clown y Icos (Arrigorriaga), Bilboko kalealdia, Kalerki (Zarautz), Kaleka (Lekeitio), Pasaiaiko Dantza Festibala, Kaldearte (Gasteiz), Festikale (Zigoitia) Dastuarte (Gorliz), Dantza Hirian (Irun, Hondarribia, Hendaia, Biarritz), Arabako Plazetan (Arabako hainbat herri

OPEN KALE



4.3.1 KARRIKAN

“Kaleko Arteetan” Euskal Herriko (7 probintzia historikoetan) artista berrien sorkuntza eta hedapena bultzatu nahi duen plataforma bat da. “Zuzeneko ikuskizunaren” diziplina guztiak onartuko dira: antzerkia, dantza, zirkua, diziplina anitzekoa, etab. Hala ere, lehentasuna emango zaie euskarazko edo testurik gabeko proiektuei.

Karrikan bazkide nagusiek osatzen dute:


- **Bazkideak:** Kalealdia Jaialdia (Bilbo), Kaldearte Jaialdia (Gasteiz), Maiatzeko Antzerki Jaialdia (Hendaia), Umore-Azoka (Leioa) eta Antsoaingo udalerrria.
- **Bazkide elkartuak diren Jaialdiak eta udalerrriak:** Arrigorriaga, Lezo, Kalerki Jaialdia (Zarautz), Kaleka Jaialdia (Lekeitio) eta Ribera en Danza Jaialdia (Nafarroa).
- **Elkartutako egoitzak:** Dantzagunea (Errenteria), Garaion-Sorgingunea (Otaza, Araba) eta Zirkodomo (Bagatza, Bizkaia).

5. Balantzearen xehetasun argigarriak


5.1. Kultur emanaldiak, jarduera eta publiko motaren arabera (2018tik)

Taula honetan, antolatutako kultura-jardueren kopurua eta ehunekoen banaketa ikus daiteke. Laburpen zutabe hauetan Musika Eskolako jarduerak gehitu dira (Lesoinu eta ikasturte amaierako jardunaldi pedagogikoak). Era berean, udal liburutegiko literatur solasaldiak gehitu dira, guk antolatu ez arren, kuantifikatzea beharrekotzat jotzen ditugulako, kultur jarduerak direlako.

Esan behar da bi jarduera horietan programatutako ekitaldi kopuru osoa dugula, baina ez parte-hartzaile kopurua. Hau da, jardueren kopurua eta hizkuntza zenbatu dezakegu agendan iragartzen ditugulako, baina doakoak direnez eta sarrera hartzea beharrezkoa ez denez, ez dakigu zenbat parte-hartzaile dauden guztira, eta horrek estatistika zailtzen du. Hala ere, argi dago Musika Eskolak eta liburutegiak ekitaldi horiek antolatzen jarraitzen badute, espero zen arrakasta-atalasea gainditzen dutelako dela.



5.2. Kultur emanaldiak, hizkuntzaren arabera



6. Kontuan hartu beharreko beste alor batzuk

Jarraian, sailaren balantzea egiterakoan, ondoko atal hauek ere garrantzi handia hartzen dutelako aipatu egingo dugu. Izan ere, apenas “ikusten” ez diren beste jarduerak hauek ere laneko “denboraren lapurrak” dira. Denbora asko eramaten dute.

- 1) Publikoen lanketa
- 2) Komunikazioa
- 3) Aretoen erabilera
- 4) Argitalpenak
- 5) Estatistikak
- 6) Kontratazio mahaiak & balorazio txostenak udalean
- 7) Udaletik kanpo egituretan parte hartzea

6.1. Publikoen Lanketa

Aurreko atal batean esan dugu antzerkia eta dantza programatzen dugunean ez dela gure asmoa ikusleak sortzea, itxaropenak baizik, baina horrek ez du esan nahi publikoaren alor hau ez dugula kontuan hartzen. Aldiz, oso kontuan dugu publiko berriak osatzea eta egun zalea den hori elikatzea. Hori dela eta, hona hemen publikoen inguruan gure politika finkatzen duten lau atalei buruzko ohar batzuk:

Lezo Eszena. Txalosten

Publikoaren lanketa honetan, Lezoko udala HIKA Teatroarekin 2023an hasi ginen lanean. Gure asmotan, arte eszenikoak sustatzeko lurra ongarritzea, finean, publikoaren eta arte eszenikoen binomioa herriaren erdigunean jartzea. Bi urte hauetan egindako lana ez da alferrikakoa izan. Udalak hilabete honetan bildu dituen **zenbakiak ikusle kopuruez** horixe diote (ikus “Publikoa eta Sarren salmenta” taula 24 orrialdean):

Zalantzarik gabe, **Lezo Eszena** proiektua Herrian txertatzen ari den egitasmoa da. Lehen urteko jendearen jakin mina gaindituta, bigarren urtean herritarren parte-hartzea eta harrotasun sententzia nabarmentzen hasi ginen. Horren adibidea garbia dugu esaterako, ikusleek sentitzen dutena emanaldien ondoren konpainietako sortzaileei Txalostean goraiatzaren dutenean.

Aipagarria ere, 2024ko edizioan toki nabarmena eskaini zaiola Lezoko Orratz antzerki talde amateurrari. 2024ko maiatzaren 25ean Ubu errege ikuskizuna antzeztu zuten eta ondoren solasaldia burutu zen. Urriaren 27an, Antzerki Talde Amateurren jardunaldien itxiera egunean beste solasaldia eskaini zen.

Horrez gain, esatekoa da ere, 2023ean Lezoar bat aurkeztu zela Antzerki Testu Laburren lehiaketara; 2024ean, aldiz, bi izan ziren Lezotarrak eta kasu honetan biak gazteak, 35 urte baino gutxiagokoak.

Azkenik ez dugu ahaztuko PARTIDAn jokoan egon ziren sei testu finalisten liburuxka argitaratu da -50 ale izango dira guztira argitaratuko direnak-. Ale hauek Lezoko bigarren hezkuntzako bi ikastetxeetan, idazleen elkarte eta Euskal herri osoko antzerki eskoletan.

Lezo eszena proiektuaren helburu zehatzak

1. Arte eszenikoetan (antzerkia eta dantza) publiko berriak sortzea.
2. Euskal eszenaren produkzio kulturala ahal den publiko zabalenera iristea.
3. Formula berriak landuz, Gazte jendea erakartzea.
4. Kulturen hezitzea.
5. Jendea antzokira eramatea eta arte eszenikoak kalera ateratzea.
6. Antzokira joateko ohitura errotzea.
7. Dramaturgo berriei bultzada ematea.
8. Euskal Herri osoko sortzaileak ezagutaraztea.
9. Euskal arte eszenikoaren sustapena egitea.
10. Euskal emakume sortzaileen sustapena egitea.

1) Kultura-aniztasuna eta herritarren parte-hartzea:

- a) Ekitaldi kulturaletan jendea egoteak gizarte baten interes eta gustuen aniztasuna islatzen du.
- b) Parte-hartze kulturalak gizarte-kohesioa eta pertinentzia-sentimendua lortzen laguntzen du. Kultura-politikak bermatu behar du guztiek eskura izango dituztela kultura-esperientziak.

2) Eragin ekonomikoa eta turismoa:

- a) Kultura-ekitaldi batek audientzia apala izan badezake ere, eragin sozial eta ekonomikoa esanguratsua izan dezake sare sozialetan eta prentsa idatzian.
- b) Kultur jarduerak jendea erakartzen dute eta herri baten irudia hobetzen dute.

3) Publikoaren prestakuntza eta sorkuntza artistikoa:

- a) Kultura-jarduerak garatzeak publiko berriak prestatzen laguntzen du. Hainbat adierazpen artistiko eta kulturaletara agerrarazteak mugak zabaltzen ditu eta pertsonen estimazioa eta irizpidea sustatzen ditu.
- b) Artistek eta sortzaileek aukerak behar dituzte lana aurkezteko. Esperientzia horiek sormena eta garapen artistikoa elikatzen dute, ez bakarrik bertaratuen artean, baita hauen "ondokoen" artean ere.

4) Identitatea eta ondarea:

- a) Kultura-jarduerak komunitate baten nortasuna eta ondarea transmititzen dute. Masiboak ez badira ere -Lezok ez du liga horretan jokatzeko-, bizirik dira historiarekiko, tradizioekiko eta sustrai kulturelekiko loturak.
- b) Kultura-politikak ekitaldi masiboak eta intimoak babestu behar ditu -jaietan izaten diren Danborrada eta herri bazkariak bezalakoak kasu-, baita Poesia Kaia bezalako ekitaldi xumeak ere. Kultur politika sendoa bat garatzen den herrian, kultura-adierazpen guztiek beren lekua izango dutela bermatu behar da.

Laburbilduz, publikoaren presentzia, funtsezkoa da gure kultura aberasteko, gizarte-kohesiorako eta garapen artistikorako. Hika Antzerki Taldearekin batera, **Txalostean** deritzan jarduera sortu genuen 2022an Gezalan, emanaldien bukaeran antzezlanaren solasaldia eskainiz eta emanaldi ikusi berriarekin berriro gozatu ahal izateko. Horren jarraipenean, Testu laburren lehen lehiaketa arrakastatsua sortu da 2023an. Jarduera hau Eusko Jaurlaritzak 16.619 €-rekin babestu du.



Jai egitarauak
eta kultur
agendak urteka

PUBLIKOA – Sarrerren salmenta [Ez daude Lesoinu eta ekoizpen propioak]	2021	2022	2023	2024
Sarrera kopurua ²	7.661	6.721	5.101	2.361 ³
Batez besteko asistentzia Gezalan	%59,6	%69,6	%74,2	%94

²KmLezo eta kale jarduera denetan, Covid garaian sarrerak ezinbestean hartu behar ziren. Beste urteetan ez da beharrezkoa izan.

³Bi emanaldi gutxiagorekin.

Oharra: 2021. urtean dagoen publikoa COVIDaren eraginez dago handitua. Hau da, nahiz eta doako ekitaldiak izan, aforoen kontuak behartu gintuen ekitaldi guztietan sarrerak eskatzera. 2023an, aldiz, kale ekitaldietan prozedura askeago izan zen, eta KmLezon eta Testu laburren lehiaketan sarrera irekia zen. Hau da, sarrerarik eskuratu gabe bazegoen sartzerik.



Antzerki testu laburren lehiaketa. 2023

6.2. Komunikazio jarduerak

KOMUNIKAZIO jarduerak	2018	2019	2020	2021	2022	2023	2024
Agenda - Argitalpenak	3	2	2	3	3	3	2
Jai programa - Argitalpenak	4	4	1	2	4	4	5
Lonak - Inprimaketak	0	4	4	4	4	4	4
Roll Up - Inprimaketak	0	4	4	5	5	5	5
Kartelak - Inprimaketak	0	0	0	1	1	1	3
Prentsaurreak	7	6	3	5	7	7	6
Prentsa Oharrak	7	6	4	6	7	7	6
Web-orria - Kultura-albisteak	125	175	180	222	185	176	146
App-a - Ekitaldien komunikazioak	111	116	106	109	91	99	94
Bideoak - Youtube		7	15	51	19	21	20
Instagram Post-ak (Story-ak x 2 inguru)				216	258	243	166
GUZTIRA	157	324	319	624	584	570	477

6.3. Aretoen erabilera [AI02]

ARETOEN ERABILERA [erreserbak] Udal erabileratik kanpo	2018	2019	2020	2021	2022	2023	2024
Kultura Aretoa	43	55	24	10	24	12	21
Gezala Auditoriuma	32	38	14	23	12	11	17
GUZTIRA	75	93	38	33	36	33	38

Gainera, Lezon Kultura Sailarekin lotutako lokal eta areto gehiago daude. Lokal horien erabilera egutegia sail honetatik eramaten dugu. Lokal horien jabetza udalak duela egia bada ere, hainbat elkartek ia erabilera eskusiboko lagapena duten lokalak dituzte, baina, aldi berean, eskaera bereziak daude lokal horien erabilera puntuala eta partekatua egiteko.

Horretarako, hura kudeatzeko urteko erabilera-ordutegia duen egutegi bat ezartzen dugu. Hauek dira lokal horiek:

- 1) Dantza lokala kiroldegi azpian
- 2) Dantza lokala Kale Nagusian
- 3) Antzerki lokala Kale Nagusian
- 4) Euskaltegia, Polentzarrene kalean



Gaxuxa Emakume taldearen erakusketa, kultur aretoa

6.4. Argitalpenak

Lezoren existentzia eta nortasuna erakutsi eta indartuko duen argitalpenen ildoak planifikatzea, sustatzea eta gauzatzea ere gure ardura da: liburuak, ipuinak, fototeka eta memoria, ondarearen berreskurapena eta bilduma egitea. Eta gure argitalpen guztiekin udal artxiboa osatzea web-orrian -agendak, jai programak, liburuxkak...- Web-orrian daudenak kenduta, azken urteetan hauek izan dira gure argitalpenak:



Argitalpenak

ARGITALPENAK	2018	2019	2020	2021	2022	2023	2024
Urteko egutegia	1	1	1	1	1	1	1
Tomas Garbizu Donostiako kantu zaharrak [txistua/pianoa]	1						
Joannes Etxeberri ipuina		1					
Tomas Garbizu - Concierto mágico para violín y orquesta		1					
Ilunpetik argitara		1					
“Zeorri”- [Piztu Lezok argitaratua]			3	3	3	3	3
Maria Labayen ipuina			1				
“San Juan Sua”- Bideoa			1				
Gau Beltza - ipuina			1				
Hiku Miku Ziriku				1			
Lope de Isasti				1			
Trabajadoriak				1			
Esklabuen barrakoiak					1		
Lezo'ko baserriak					1		
Eskribu galduen bila - Patri Urkizu						1	
Garaiak eta Esklabotutak. Bortxazko lanak Lezon 1939-1942						1	
Antzerki testu laburren lehiaketa-1							1

Oharra: “Zeorri” aldizkaria Piztu Lezok argitaratzen du urtean hirutan, baina udal dirulaguntzarekin.

6.5. Estatistikak [KU60]

Kulturaren Euskal Behatokiak horrela aginduta, bi urtetik behin Eusko Jaurlaritzak bi inkesta “mardul” hauek betearazten ditu. Eta horiez gain, Euskal eszenaren egoera egunean izateko, Antzokien Sareak 2023tik hilabetero behar ditu emanaldien xehetasunak (kopurua, publikoa, prezioak...)

Landutako ESTATISTIKAK	2018	2019	2020	2021	2022	2023	2024
Kultura-arloko finantzaketa eta gastu publikoa		1		1		1	
EAEko arte eta kultur industriaren estatistika	1		1		1		1
Sarea – Gezalaren okupazioa	1	1	1	1	1	12	12
GUZTIRA	2	2	2	2	2	13	13

6.6. Kontratazio mahaiak, kanpo bilerak, epaimahaiak eta ferietan parte hartzea

Kontratazio-mahaietan irizpideak eta azpi-irizpideak baloratzea prozesu erabakigarria da kontratu publikoak esleitzeko garaian. Irizpide horiek kalitatea eta prezioa bezalako alderdiak barne hartzen dituzte, eta zehazten dute zein eskaintza den onuragarriena erakunde kontratatzailearentzat. Balorazio txostena egin behar denean, horrek lan handia ekartzen du, ez baita soilik txostenak irakurtzea eta iritziak ematea, idatziz baloratu behar dira, eta esleipen-irizpideen barruan azpi-irizpide espezifikoak definitzea funtsezkoa da bukaeran aurkeztuko den txostenean modu argian agertzeko baloratu dugun irizpidearen efizientzia eta gardentasuna neurtzeko.

2018tik Euskadiko Antzoki Sareko Zuzendaritzan egoteak eta gainera, aldi berean, Batzorde Artistikoko partaidea izanik maiztasun jakineko bilerak egitea ekartzen du berekin urtean zehar. Lehenik eta behin, Sarearen hiru Batzar Nagusi Antzokien Sarea osatzen dugun 69 herriko kultur teknikari eta programatzaileen artean -Donostian, Dferiaren barruan; Leioan, Umore Azokaren barruan eta Santurtzin, Antzerki jardunaldien barruan-.

Batzar hauen gaitegia prestatzeko, eramango dugun katalogo berriaren oharra adosteko eta aztertzeko, Batzorde Artistikoaren beste hiru bilera egiten dira Donostia eta Bilbon. Eta Zuzendaritza Batzordearen beste bilera bat edo bi -Donostian eta Bilbon-.

Gipuzkoako Foru Aldundiak urtero beste batzar bat antolatzen ohi du Gipuzkoakoa Kultur Teknikarien artean Donostian. Horiez gain, Musika Bulegoak -Euskal Herriko musika-jarduera sustatzeko eta hobetzeko proiektua-, beste bat Elorrioren apirilean eta azkena Durangon, azaroan, liburu eta disko azokaren aurretik euskal musikaren produkzioaren berri izateko.

6.6.1 Kontratazio mahaiak eta balorazio txostenak udalean [ID16 & ID17]

Sail honek honako BALORAZIO TXOSTENAK egin ditu	2018	2019	2020	2021	2022	2023	2024
Komunikazio Zerbitzuak	1	-	-	1	1	1	-
Haurren aisialdia [udalekua & ludoteka]	1	-	-	-	-	1	-

6.6.2 Kolaborazioak dantza eta antzerki epaimahaietan

Dantza eta produkzio eszenikoaren epaimahaiak	2018	2019	2020	2021	2022	2023	2024
Sortutakoak-13 - Dantzagunea	1	-	-	-	-	-	-
Produkzio eszenikoa baloratzeko batzordea - EJ	-	-	-	1	1	1	-
Donostia Antzerki Saria	-	-	-	-	-	-	1

• Sortutakoak

Gipuzkoako Foru Aldundiak, dantza proiektuak sortzeko, garatzeko eta zabaltzeko Dantzagunearen programa garatzen duena. 2018an, 19 proiektu aztertu ziren.

• Produkzio eszenikoa baloratzeko batzordea

Deialdi honetan, laguntza modalitateen arabera, honelakoa da:

- a) Hitzartutako zirkuitua duten produkzioei zuzendutako laguntzak: 225.000 euro
- b) Produkzioak I egiteko laguntzak: 175.000 euro
- c) Produkzioak II egiteko laguntzak: 280.000 euro
- d) Bi urteko jarduera eszenikorako laguntzak: 700.000 euro

Dantza Balorazio batzordean gaudenon artean 518.000 € banatzeko ardura dugu.

Balorazio batzordean sei pertsonak hartzen dugu parte, denak Eusko Jaurlaritzak izendatuta, eta 20-25 proiektu aztertzen dira hiru lan-saiotan. Lehengoan, Balorazio batzordeak bildurik, baloraziorako irizpideen batasuna bilatzen da. Bigarrenean, balorazio batzordeak bildurik, talde bakoitzak 15 minutuko aurkezpena egiten du bideo konferentziaz. Eta hirugarren batean, batzordekide bakoitzak bere aldetik egin duen balorazioa besteekin alderatu eta eztabaidatzen da.

• Donostia Antzerki Saria

2024an da lehenengo aldia lan hau eskatu digutela. Donostian euskaraz aurkezten eta estreinatzen den antzerkiaren produkzio osoa ikusi eta baloratu dugu (guztira 16 emanaldi). Gero urte bukaeran, saria erabakitzeko balorazio bilera egin da.

6.6.3 Euskadiko Antzoki Sarea. Bilerak eta batzarrak

EUSKADIKO ANTZOKI SAREA Bilerak eta batzarrak	2018	2019	2020	2021	2022	2023	2024
Aldundia - Kultura-bilerak	1	1	-	-	1		-
Batzorde Artistikoa	3	3	1	1	3	3	3
Zuzendaritza Batzordea	-	1	1	2	1	1	2
Sarearen Batzarra	3	3	1	1	3	3	3
Musika Bulegoa	-	1	-	1	2	2	1
GUZTIRA	7	9	3	5	11	9	9

6.6.4 Feriak COFAE. Asistentzia

Bilera horiezaz gain, kultur agendaren antzerkia eta dantza programazioak osatzeko eta Euskadiko Antzokien Sarean ditugun ardurak betetzeko, Batzorde Artistikoa osatzen dugun sei partaideen artean -Barakaldo, Sopela, Elorrio, Zumaia, Irun eta Lezo- banatzen dugu COFAE-k urtean antolatzen dituen 19 ferien artean gutako bakoitzak izango duen asistentzia. Horiezaz gain, azken bi urteetan Donostian ospatzen den LABO XL dantza jaialdian ere parte hartu dugu.

FERIAK Asistentzia egutegia	2018	2019	2020	2021	2022	2023	2024
Feten – otsaila	1	1	1	1	1	1	1
Dferia - martxoa	1	1	1	1	1	1	1
Titelles [Lleida] – maiatza						1	1
Tac [Valladolid] – maiatza					1		-
Umore Azoka [Leioa] - maiatza	1	1	1	1	1	1	1
MaDferia [Madril] - ekaina					1	1	1
Ciudad Rodrigo – abuztua	1	1			1	1	-
Huesca – iraila	1	1	1	1	1	1	1
MAE [Cáceres] - azaroa	1	1	1	1			-
LABO XL - azaroa					1	1	1
GUZTIRA	6	6	5	5	8	8	7
Ikusitako Zirkua, Dantza eta Antzerki emanaldiak	2018	2019	2020	2021	2022	2023	2024
GUZTIRA	152	171	99	171	115	136	183



6.6.5 Lezoko ondare historikoa babestea eta berreskuratzea

Unesco-k 1972an **Kultur eta Natur Ondarea babesteko Hitzarmenean** eta gero Euskal Kultura Ondareari buruzko 6/2019 LEGEA, maiatzaren 9koa, Euskal Kultura Ondarearena, kultura-ondare zaindu eta sustatzea dute helburua etorkizuneko belaunaldiak transmitituko zaiela ziurtatuz. Ildo honi atxikita azken urtetan ondokoak dira sailetik burutu diren ekintzak:

- 1.1. *Elías Salaberria* (1883-1952), pintore handiaren bi kuadro eskuratu dira.
 - “ATTA”, bere aitaren erretratua. Obra hau, beste askk bezala, katalogatu gabea da, beraz izenik gabea. Halere, Elias Salaberria gaztaroan aita marraztu zuen eta ATA (T letra, azentuarekin) izenburua jarri zion. Beraz, oraingo honi ATTA izenburua jartzea logikoa litzateke (6.000 eurotan erosia).
 - “Retrato de señora”, donazio bitartez eskuratua.
- 1.2. *Justo Pascual Velasco* margolari erreteriarrek eginen Elias Salaberriaren retratua. Hau ere donazioa bat izan da eta aurreko beste biek batera udal liburutegiko eskaileretan dago ikusgai.
- 1.3. *Tomás Garbizu* (1901-1989), musikari handiaren bi lan eskuratu ditugu: “Donostiako kantu Zaharren” bilduma txisturako (enkarguz, Silbo Berri elkarteak egin) eta “Concierto mágico para violin y orquesta” Jon Makuso musikari lezoarraren doktore tesia.
- 1.4. *Patri Urkizu* (1946-2024), Lezo-ko euskaltzain urgazlea, irakaslea eta idazlearen biografia: “Eskribu galduen bila” eta bere web orriaren kudeaketa eta zaintza.



Patri Urkizuren “Eskribu galduen bila” liburuaren aurkezpena (2023-12-01)

7. Lezoarren legeintzaldi hasierako balorazioa. Herritarren iritzia eta jarrerak, 2023.

Azken atal honetan, labur-labur ustekabeen jaso dugun opariari buruz bi ohar. Izan ere, 2023-27 korporazio berriak udal funtzionamenduari buruzko iritzia jakiteko, herritarren iritzia jakiteko herri galdeketa enkargatu zion AZTIKER soziologia lkerguneari. Udalean entregatu berri duten **“Lezoarren legeintzaldi hasierako balorazioa. Herritarren iritzia eta jarrerak, 2023”** txostenean, herritarrek uste orokorra adierazi dute hainbat zerbitzuren inguruan.


Udalak kudeatzen duen kultura-zerbitzuari buruz herritarrek adierazi duten balorazio positiboa kalitatearen adierazle garrantzitsua da. Gogobetetze-inkestetan bildutako datuen arabera, **kultura-eskaintza OSO ONA** izan da herritarren artean. Izan ere, kultur eskaintza horrek berak lortu du baloraziorik onena udal zerbitzu guztien artean. Aintzatespen horrek islatzen du komunitateak kultura-jarduerei ematen dien garrantzia eta tokiko bizitzan duen eragin positiboa.

3.4.2. UDAL GOBERNUA HAINBAT GAIETAN NOLAKO KUDEAKETA EGITEN ARI DEN

Honako gaietan, Udala nolako kudeaketa egiten ari dela esango zenuke?

	Oso ona	Nahiko ona	Nahiko txarra	Oso txarra	Ez dakit	Indizea (100 / -100)
Kultura eskaintza	14,6	58,5	9,2	2,4	15,4	36,9
Emakumeen eta gizonen berdintasuna	10,8	57,9	7,2	1,3	22,7	34,9
Hizkuntzen kudeaketa	8,5	57,9	12,1	2,7	18,8	28,7
Gizarte zerbitzuen esparruan	4,7	43,8	13,0	4,3	34,1	15,8
Adinekoentzako zerbitzuak	2,3	42,5	18,8	4,9	31,6	9,3
Ingurumena: krisi klimatikoa	2,3	35,8	27,6	5,7	28,7	0,7
Haur parkeen kudeaketa	5,1	35,1	26,2	9,0	24,6	0,6
Kaleen eta azpiegituren egoera	0,3	46,0	37,4	9,4	7,0	-4,8
Zure auzoak udaletik jasotzen duen arreta	1,9	42,0	27,8	15,9	12,3	-6,9
Aparkalekuak	0,3	16,0	44,4	27,0	12,3	-41,0

Iturria: Lezoko herritarren iritzia Udalen eta bere proiektuen inguruan. Aztiaker, 2023.



Testuinguru horretan, funtsezkoa da azpimarratzea herritarrek kultura-zerbitzuarekin duten gogobetetzea ez dela soilik eskaintzen diren ekitaldi eta programen kalitatean oinarritzen, baita sustatzen den irisgarritasunean, aniztasunean eta parte-hartze aktiboan ere. Komunitateak tokiko kulturaren sustapena, maila artistikoa, lankidetzaren eta topaguneen sorrera balioztatzen ditu. Emaiza horiek kultura-garapenean inbertitzearen garrantzia babesten du herri baten ongizatearen eta nortasunaren zati

integral gisa.

8. 2024. urteko Lezoko aurrekontuari buruzko Kultura Sailaren Memoria

Zenbakiek gauzak kontatzen dituzte, baina ez dira gauzak: eutsi ditzakegu bi katilu, baina ezin diogu “bi” zenbakiari eutsi.

Horregatik, Lezoko udalerrian “zenbaki horiekin” finkatutako kultur politikak pertsona aktiboak eta herritarren ongizatea eta bizi-kalitatea bilatzen ditu. Lezoko Kultura Sailak udalerrriaren nortasun kulturala “lantzeko” hiru ardatz proposatu ditu gure jardueraren oinarri eta euskarri gisa: berdintasuna, euskara eta sormena.

Kultura dinamizazio ekonomikorako eta ekimen sustatzaileak erakartzeko oinarria da. Europar Batasunak kulturaren eta sormenaren aldeko apustu garbia egin zuen, eta, gaur egun, balio erantsiko enplegua sortzeko potentzial handiena duen sektoreetako bat da.

Baliabide kulturalak udalerrriaren garapen orekaturako giltzarri bihurtzea da Kultura Sailaren estrategia. Horretarako, kultur sektoreko ekoizpen-katearen elementu guztiak hartu beharko dira kontuan -artista eta produktu kulturala, edizioa eta inprimaketa, digitalizazioa, komunikazioa... -, irudi erakargarria ematen saiatuz eta udalaren irudi korporatiboa marka kulturalari atxikitzen saiatuz.

Premisa horietatik abiatuta, Kultura Sailak kulturarako sarbidea landuko du, herritarrak eta elkarteak kulturaren erdigunean jarri nahi baititu, gure kultura-politikak sortzaileak izan daitezen.

Politika integratzaileak oinarri hartuta, berdintasuna, tolerantzia eta inklusioa dira sail honen konpromisoak. Sailaren lana izango da kultura ezberdinak ezagutzea, elkar aitortzea eta tokiko kulturara, gure balioetara eta helburuetara hurbiltzea, elkarbizitzaren eta herritarren erantzukizunaren alde eginez.

Eta hori guztia kontuan izanik, honako hauek dira sailaren jarduera-ildo nagusiak:

1. Lezoren existentzia eta nortasuna erakutsi eta indartuko duen ildoak planifikatzea, sustatzea eta gauzatzea. Hau da, liburuen eta ipuinen argitalpena, fototeka mantentzea eta memoria historikoa eta ondarea berreskuratzeko lana bultzatzea eta indartzea.
2. Antzerkia, dantza eta musika-sorkuntza sustatzea -azken hori Tomas Garbizu udal musika eskolarekin batera-. Izan ere, eszenarekin lotutako jarduera horiek tokiko taldeak dituzte, bai eta udalerrian oso errotuta dagoen jarduera propioa.
3. Kilometro Lezo kaleko jarduerak sustatzea, batez ere dantza eta zirkua, kalitate tekniko handiko ikuskizunak daudelako, baina beren ezaugarriengatik Gezala Auditoriumaren ohiko programazioan lekurik ez dutelako.
4. Horregatik, sail honen lehentasuna da antzerki- eta dantza-talde horiek udalerrian indartzea, azpiegiturak eta baliabide ekonomikoak eskainiz, jarduera hori indartu dadin.
5. Euskal Herriko zein atzerriko kultur emanaldien produkzio eszenikoak programatzea, kanpoko eragileen joera eta lan berriak ezagutarazteko gure komunitatean eta tokiko sormen gaitasuna aberasteko.
6. Herriko elkarte eta eragileen esku-hartze zabalena eta orekatuena bultzatuko duten ekintzen bitartez, herriko jaietan dirulaguntzen lerroa finkatzea. Aipatu esku-hartzea sustatu ahal izateko, azpiegituren kudeaketa egokia bideratzea.
7. Irakurzaletasuna sustatzen duten ekintzak antolatzea. Hau da, “Poesia Kaia” jardunaldiak, “Testu laburren lehiaketa”, ipuin kontaketak, literatur lehiaketak eta bisita gidatuak udal liburutegian.
8. Kultura Sailaren 2024-26 dirulaguntzen Plan Estrategikoaren hiru ildoak gauzatzea:

1) Lezoko hezkuntza jardueraosatzen duten eskola komunitatearen proiektuak babestea.

Helburua:

Hezkuntza-komunitatearen egoera hobetzea, aniztasuna erraztuko duten aukerak sortuz.

2) Auzoetako tradizioak, jaiak eta kultur ekimenak sustatzea, norberaren jarduera eta irabazi-asmorik gabeko elkarteekin eta hala eskatzen duten partikularrekin lankidetzazustatzeko.

Helburua:

Jaietan antolatzen diren egitasmoak eta elkarte antolatzaileak babestea, Lezoko jaietan antolatzen diren belaunaldien arteko jarduera artistikoak eta kulturalak sustatu, sendotu eta zabaltzeko.

3) Herriko elkarte eta partikularren jarduera artistikoak eta kulturalak sustatzea -ikastaroak, lehiaketak...-, eta irabazi-asmorik gabeko elkarten eta udal-elkarten jarduerak babestea eta sustatzea, kultura-ekimen pribatuak areagotzeko.

Helburua:

Lezoko biztanleei zuzendutako jarduera artistikoak eta kulturalak sustatzeko eta zabaltzeko asmoz, biztanleen eta elkarte antolatzaileen esku-hartzea sustatzen duten egitasmoei laguntzea.



Antzerki testu laburren lehiaketa. 2023

Inauteriak. Trapujale. Ostiratori.



9. 2025. urteko lan lerroen kronograma

	URTARRILA	OTSAILA	MARTXOA	APIRILA	MAIATZA
Jaiak		Inauteriak			Mendekosteak
					Euskal Jaia
Ohiko Kultur jarduerak eta egun bereziak	Porrotx & Marimotx	Santa Ageda	Martxoak 8 Emakumearen Nazioarteko Eguna	Soinu zahar Txapelketa (12)	Eskola Jaia - Herri Eskola
				Herri Kirol Eguna (5)	"Lezokoak" Paellada
				Dantzari-txiki eguna (13)	
			Pasaia Lezo Lizeo Eguna		
Argitalpenak & Komunikazioa Lanak		Inauterien Programa			Mendekosteak & Euskal Jaiei Programa
		Testu Laburren Lehiaketa			
		Jai Egitaraua: Web / APP / SS / Prentsa			Jai Egitaraua: Web / APP / SS / Prentsa
Jarduera eszeniko bereziak				Lesoinu	
Hitzarmenak & Dirulaguntzak > Kanpoko Deialdiak & Diru	Deialdia: Kalea bultzatuz	Kitapena kalea Bultzatu EJ	Udal Hitzarmen. berri		
		Kitapena Sarea Aldundia			
Antzokien Sarea	Batzorde Artistikoa	Osoko Bilkura Dferia	Batzorde Artistikoa	Batzorde Artistikoa	Osoko Bilkura Leioa
		Hitzartutako Zirkuitua		Musika Topaketak Elorrion	Ermuko Kontratazio Foroa
		Feten Xixon	Dferia Donostia		Titelles Lleida
Estatistikak & Besteak	Matrikulazio kanpaina. Gutunak bidali				
	Estatistikak Sarea	Estatistikak Sarea	Estatistikak Sarea	Estatistikak Sarea	Estatistikak Sarea

EKAINA	UZTAILA	ABUZTUA	IRAILA	URRIA	AZAROA	ABENDUA
		Gaintxurizketa jaiak	Altamirako jaiak			Abendua & Gabonak Programa
			Santakruzak			
Kurtso amaierako jarduerak: Murixka & Orratx	Udalekuak		Memoria historikoa		Azaroak 25 Emakumearen aurkako indark. Ezabatzeko Eguna	Euskaren Eguna
			Gazte eguna		Bertso Saioa	Liburu Azoka
San Juan			Gargardo Feria			Santomas
						Errege kabalgata
			Santakruz jaien Programa		Udal Egutegia > Lehiaketa antolatu	Udal Egutegia Argitaratu
Etzetxo (?)			Kultura Agenda Argitaratu			Kultura Agenda Argitaratu
			Jai Egitaraua & Kultura Agenda: Web / APP / SS /		Egutegia: Web / APP / Sare Sozialak/ Prentsa	Kultura Agenda: Web / APP / Sare Sozialak/ Prentsa
		KmLezo		Testu laburren Lehiaketa	Poesia Kaia	
				Antzerki Ametsetan		
Deialdiak: Antzokien Sarea					Deialdia: Dantza zirkuitua	Udal Hitzarmen. zuritu
Deialdiak: Kale Kultura [Aldundia]						
			Zuzendaritza Batzardea (?)	Batzorde Artistikoa	Osoko Bilkura Santurtzi	
				Zuzendaritza Batzardea		
MadFeria Madrid		Ciudad Rodrigo	Huesca		Extremadura	
		Sarrerren salmenta berria plataforman jarri	Udal Aurrekontuak Tasak prestatu	Aurrekontuen Memoria prestatu		Sarrerren salmenta berria plataforman jarri
Estatistikak Sarea	Estatistikak Sarea	Estatistikak Sarea	Estatistikak Sarea	Estatistikak Sarea	Finantzaketa eta Gastu Publikoa EJ-ra	Estatistikak Sarea



INFORMAZIO GEHIAGO



Kultura Saila



Instagram



Youtube



Kultura berriak



Kultura APPa